

PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	GAS-SAREETAKO LAN- ETA INGURUMEN-ARRISKUEN KUDEAKETA		Iraupena	50
Kodea	MF1206_3			
Lanbide-arloa	ENERGIA ETA URA			
Lanbide-eremua	Gasa			
Profesionaltasun-ziurtagiria	Gas-sareen muntaketaren eta mantentze-lanen kudeaketa	Maila	3	
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko gainerako prestakuntza	Gas-erregaiak banatzeko eta erabiltzeko sistemak	Iraupena	80	
	Gas-sareak ezartzeko plangintza		60	
	Gas-obren muntaketa		60	
	Gas-obren muntaketaren kalitatea eta kudeaketa		60	
	Gas-sareak martxan jartzeko sistemak		50	
	Gas-sareen mantentze-lanen antolaketa eta kontrola		80	
	Gas-sareen muntaketa eta mantentze-lanak kudeatzeko lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak		80	

A atala: GAITASUN-ERREFERENTEA

Prestakuntza-modulu hau bat dator gaitasun-atal honekin: UC1206_3. LAN- ETA INGURUMEN-ARRISKUAK PREBENITZEKO NEURRIEN APLIKAZIOA KUDEATZEA

B atala: AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA
Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Instalazio eta ekipoetako manipulazio-jardueretarako prebentzio- eta segurtasun-neurriak (sektoreko enpresetako segurtasun-planetan jasotzen direnak) azterzea.

EI1.1 Instalazioak eta ekipoak manipulatzeko eragin ditzakeen arriskuekin lotutako prebentzio- eta segurtasun-arauak zehaztea.

EI1.2 Arrisku-faktoreak eta arriskuak identifikatu eta ebaluatzea.

EI1.3 Produktu kutsatzaileekin egiten diren jardueretarako ingurumen-babeseko eskakizunak identifikatzea.

EI1.4 Lan-eremuen eskakizunak eta haien prestatzeko prozedurak deskribatzea, eta laneko arrisku espezifikoak eta haien zuzentzeko neurriak zehaztea.

EI1.5 Gerta litezkeen istripuetarako lehen sorospenen eskakizunak azterzea.

EI1.6 Langileek eta enpresak prebentzio- eta segurtasun-arloan dituzten eskubide eta betebeharrak definitzea.

A2: Segurtasun-plana aplikatzea, eta, horretarako, enpresako prebentzio- eta segurtasun-neurriak eta ingurumena babestekoak azterzea.

EI2.1 Prebentzio-neurriak eta neurri zuzentzaileak aplikatzea detektatzen diren arriskuei, norbera babesteko ekipoak eta babes kolektibokoak hautatzea, egoera onean izatea eta behar bezala erabiltzea barne.

EI2.2 Jarduera-protokoloak aplikatzea gerta litezkeen larrialdietan, kasurako:

- Zeregin espezifikoek arduratu behar duten pertsonak identifikatzea.
- Detektatutako disfuntzio eta gertaera arriskutsuen berri ematea.
- Larrialdietan eraikinak ebakutzeko, ezarritako prozedurei jarraikiz.

EI2.3 Gerta litezkeen istripuetan, oinarizko osasun-neurriak eta lehen laguntzako teknikak aplikatzea eta zaurituak eramatea.

A3: Gas-banaketarako sareen obretarako, muntaketarako, martxan jartzeko lanetarako eta mantentze-lanetarako prebentzio- eta segurtasun-neurriak definitzea, eta, horretarako, indarrean dagoen araudia eta enpresaren segurtasun-plana azterzea.

EI3.1 Gas-sareen muntaketaren lanbide-arriskuak identifikatzea eta ebaluatzea.

EI3.2 Segurtasun-eskuliburuak diseinatzeko laguntzea, eta, horretarako, detektatutako arriskuen aurrean hobekuntzak eta neurri prebentibo eta zuzentzaileak proposatzea.

EI3.3 Sareak muntatzeko prebentzio- eta segurtasun-neurriak teknikoki justifikatzea, arrisku-motaren arabera.

EI3.4 Lan-arriskuen kudeaketarako sailarekin elkarlanean aritzea langunea kokapenaren arabera seinalezatzeko eskakizunen diseinuan.

EI3.5 Gas-banaketarako sareen muntaketari lotutako arauzko segurtasun-erreferenteak deskribatzea, eta lanean sortutako larrialdien aurrean jarduteko protokoloak interpretatzea.

EI3.6 Lan-arriskuen kudeaketarako sailarekin elkarlanean aritzea muntaketa-langileek arriskuen prebentzioaren eta larrialdien arloan behar duten prestakuntzaren diseinuan.

EI3.7 Saneamenduko edo gas-hornidurako obra baten segurtasun-plana planteatzea, eta, horretarako, lotutako arriskuen mota eta maila, lana seinaleztatzeko erabili beharreko sistema eta norbera babesteko beharrezkoak diren ekipamenduen deskribapena finkatzea.

A4: Gas-sareetako obrak egiteko beharrezkoak diren ingurumen-babeseko neurriak aztertzea eta planteatzea.

EI4.1 Lurrak mugitzea dakarten obretan izaten diren ingurumen-arriskurik ohikoenak identifikatzea eta ebaluatzea, eta neurri zuzentzaileak proposatzea.

EI4.2 Zaborra eta hondakin-materialak sortzarekin lotutako ingurumen-arriskuak azaltzea.

EI4.3 Haizaketekin eta atmosferarako gas-isuriek lotutako ingurumen-arriskuak azaltzea.

EI4.4 Zaborrak eta hondakin-materialak kudeatzeko prozedurak deskribatzea.

EI4.5 Gas-sareetako obrak eraginpean hartutako landaredia lehengoratzeko teknikak eta prozedurak sailkatzea eta azaltzea.

Edukiak

1. Laneko segurtasunaren eta osasunaren oinarrizko kontzeptuak

- Lana eta osasuna.
- Lan-arriskuak.
- Arrisku-faktoreak.
- Lanetik eratorritako ondorioak eta kalteak:
 - Lan-istripua.
 - Gaixotasun profesionala.
 - Lanetik eratorritako beste patologia batzuk.
 - Ondorio ekonomikoak eta funtzionamendukoak.
- Laneko arriskuen prebentzioaren arloko oinarrizko arau-esparrua:
 - Lan-arriskuen prebentziorako legea.
 - Prebentzio-zerbitzuen araudia.
 - Irismena eta oinarri juridikoak.
 - Laneko segurtasunari eta osasunari buruzko direktibak.
 - Laneko segurtasunarekin eta osasunarekin zerikusia duten erakunde publikoak:
 - Estatuko erakundeak.
 - Autonomia-erkidegoko erakundeak.

2. Arrisku orokorrak eta haien prebentzioa.

- Tresna eta ekipoak erabiltzeak dituen arriskuak.
- Sistema eta instalazioak manipulatzeko dituen arriskuak.
- Kargen garraioak eta biltegiak dituzten arriskuak.
- Lan-inguruneari lotutako arriskuak:
 - Agente fisiko, kimiko edo biologikoekiko esposizioa.
 - Sua.
- Lan-kargatik eratorritako arriskuak:
 - Neke fisikoa.
 - Neke mentala.
 - Lanean pozik ez egotea.
- Langileen segurtasunaren eta osasunaren babesa.
 - Babes kolektiboa.
 - Banakako babesa.

3. Larrialdietan eta ebakuazioetan egin beharrekoak

- Istripu-motak.
- Zaurituaren lehen mailako ebaluazioa.
- Lehen laguntza.
- Sorospena.
- Larrialdi-egoerak.
- Larrialdi- eta ebakuazio-planak.

4. Gas-sareen ingurumen-arriskuak

- Obren hondakinak. Hustuketa eta tratamendua.
- Isurketak ingurura.
 - Poluzioa.
 - Berotegi-efektua.
- Ingurumen-inpaktua.
- Neurri zuzentzaileak.

5. Gas-sareen muntaketarako eta mantentze-lanetarako segurtasun-ekipamenduak

- Norbera babesteko ekipamenduak.
- Segurtasun-ekipamendu osagarriak.
- Seinalezatzeko sistemak.
- Ekipoen mantentze-lanak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Gas-sareen muntaketaren eta mantentze-lanen kudeaketa